

**María Andrés Sanzen** (Mungia, 1987) lanaren izenak *–This plan provides you cover from any hurricanes (Serie cover)–* estaldura eskaintzen du urakanen aurrean. Peter Sloterdijk ustez, bizi garen munduak arrisku guztiez babesteko aseguru du, baina ustezko erosotasun horrek badu hain atsegina ez den alde bat, gure arteko eragintzua kontrolatzen duenez, besteekin benetako harremanak izateko aukerarik gabe uzten baikaitu, begitartea lapurtzen baitugu.

**Miriam Isasik** (Vitoria-Gasteiz, 1981) argazkietan jasotzen duen agertokia erraz ezagut daiteke. Artistak xehetasun batzuk aldatzen ditu, eta isilean gordetzen ditu ikur batzuk, baina ezin hobeki erantzuten dio hain familiarra den parafernalia horri, hain ondo ezagutzen dugun erritueltasuneko grina makurrari.

**Javier Rodríguez Pérez-Curielen** (Oviedo, 1978) ekintza ikusleentzako etengabeko mesfidantzaren salaketa gisa uler daiteke nolabait, azken batean, mesfidantza horrek lana gutxiestea ekartzen baitu. Hala ere, lehen begiratuan ematen duenaren alderantzizkoa da mezua: artistak ez du notarioa behar, notarioa da artista garaikidearen irudia aurreratzen duena.

**Ana Riañok** (Bilbo, 1985) *The End* lanean erabiltzen duen kaligrafiak Hollywoodeko sakarina maitea ekartzen du ikusleentzako gogora. Hala ere, hemen, amaiera zoriontsuaren itxura erabat gezurtatzen duen atzealdearen gainean dago nabarmenduta.

**Cristian Villavicencio** (Quito, Ekuador, 1984) mugimendua sartzeko proiektuetan, motor txiki baten bidez irudia lekuz aldatzen baitu, hormako espazioaren gainetik. Era horretan, azkenean, denboraren joanean sartzeko hartzailea.

\* Erakusketako katalogorako Jaime Cuencak idatzitako testuen zatiak.

## rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



# ERTIBIL BIZKAIA

## 2013ko maiatzaren 16tik ekainaren 30era

- Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ERTIBIL BIZKAIA Ikus Arteen Erakusketa Ibiltaria Bilbon abiatuko da, eta Amorebieta-Etxano, Ortuella, Lekeitio, Barakaldo, Basauri, Santurtzi, Arrigorriaga, Ermua eta Gernika-Lumoko udalerrietatik igaroko da. Berritasun gisa, lehenengoz, Gasteizko Montehermoso kulturunean ikusi ahalko da ERTIBIL; izan ere, hantxe amaituko du bere ibilbidea, 2014ko urtarrilaren 12an.

- XXXI. ERTIBIL BIZKAIA lehiaketan saridun suertaturiko artistak ondoko hauek dira: Patrik Grijalvo, Amaia Gracia Azqueta eta José David Romero Martín.

- Erakusketa 1983. urtean sortu zen, lurraldean sortzen ari diren artistak laguntzearen eta sustatzearen helburuarekin, bai eta beste autonomia erkidego batzuetatik eta Europako herrialdeetatik etorritik ere beren sorlana Bizkaian garatzen duten artistak laguntzeko eta sustatzeko.

- Aurtengo lehiaketan, 163 lan aurkeztu dira, espezialitate guztietako 115 artistarenak. Aurkeztutako lanen artean, ERTIBIL BIZKAIA 2013 erakusketa osatzen duten 20 lanak hautatu dira. Epaimahaia profesional hauek osatu dute: Petra Joos (Guggenheim Bilbao Museoko Museo Jardueren zuzendaria), Ana Salaverria (Donostiako Koldo Mitxelena Erakustaretoko zuzendaria), Alicia Fernández (Bilboko Rekalde Erakustaretoko zuzendaria), Ismael Manterola (UPV/EHUko Artearen Historiako irakaslea) eta Jaime Cuenca (arte kritikaria eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea)

- Sarietarako dagokienez, lehiaketako irabazleek sari hauek jasoko dituzte: 5.000 euro lehenengoak, 4.000 bigarrenak eta 3.000 hirugarrenak. Hautatutako gainerako artistek 2.000 euro eskuratuko dituzte.

- Saritutako hiru artistak **Patrik Grijalvo, Amaia Gracia Azqueta eta José David Romero Martín** dira, eta hautatutako gainerako hamazazpiak, ostera, ondoko hauek: **Julen Agirre Egibar, María Andrés Sanz, Saray Blades, Juana García-Pozuelo, Inés García, Rakel Gómez Vázquez, Edurne González Ibáñez, Eduardo Hurtado, Miriam Isasi, Edurne Martínez Arroyo, Saray Pérez Castilla, Sarah Rasines, Ana Riaño, Javier Rodríguez Pérez-Curiel, Laurita Siles, Cristian Villavicencio eta Diego Vivanco.**

rekalde | Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA\*

**Patrik Grijalvo** (Bilbo, 1984) izan da lehen sariaren irabazlea, *Interbellum* izeneko argazki-lanarekin. Jaime Cuencak azaldu duenez, “bere irudien autonomia taxutzeko modua aurkitu du, egiazko erreferentearekin duen lotura ahulduz –galdu gabe– eta bere objektu izaera aldarrikatuz. Artistak irudiei ez die inposatzen hiru dimentsioko edozein forma, nahierara, baizik eta azalera fotografikoak berezkoak dituen ezaugarriak abiapuntutzat hartuz eratzen du forma hori”.

**Amaia Gracia Azquetak** (Iruñea, 1985) irabazi du bigarren saria, *Guía-Montaña* izeneko pieza eskultorikoarekin. Obra horretan, medailoi bat txertatu du, eta medailoiaren barruan, mendizale baten irudia hautematen da, bizkarrez, Caspar David Friedrich margolari alemaniarraren *Ibiltaria hodeizko itsasoaren gainean* ospetsuko irudiaren erreplika gisa. Baliteke mendian galdua izatea, arrastorik utzi gabe, eta halaxe gogora dezaten nahi du, zeruertza gogobeterik begiztatzen, beharbada zapaltzera iritsi ez den gailur batetik. Medailoia mahai beltz, soil eta estu baten gainean ipinia dago, doluminen liburuari eusteko balio dutenen antzeko batean. Hartzailak beira baten bidez bakarrik begietsi dezake, denbora etenik gelditu den kutxa batean bezala.

**José David Romero Martín** (Loja, Granada, 1988) da hirugarren saritua Ertibil Bizkaia lehiaketa honetan, *The martyr is not present* obrarekin. Lan horretan, neurri batean, *Atarax* (antsiolitiko bat, gaur egun gero eta gehiago kontsumitzen dena) kaxa egiazkoaren tratamendu grafikoa erreproduzitzen du. Sendagaia “automartiriorako kit” bihurtzen du, eta sei barietate eskaintzen ditu asaldazintasuna —martirien bertuterik preziatuena— lortzeko bidean. Hiru barietate santu kristauen liburutik ateratako martirioei dagozkie: San Esteban, San Bartolome eta San Lorenzo eta beste hiru barietateak gaur egungo martiriei dagozkie, beren gorputza modu desberdinetara birrindu zuten 70eko hamarraldiko *performance*aren artistak: Marina Abramović, Gina Pane eta Chris Burden.

**Laurita Silesen** (Marbella, Málaga, 1981) animazioko filmak Espainiako hondartzetara joaten diren turistentzako souvenir klasiko bat berreskuratzen du; eta harremanetan jartzen ditu panpina flamenko-dantzariaren kitscha eta goi-mailako kultura, *Emak bakia* izena duen Man Rayren bideoaren eskutik agertzen dena. Soraya panpinak ezkongabetasunaren ikur tradizionala den mantelina zuria uztean egiten duen keinu horrek mendekotasunetik askatzeko kutsu nabarmenez hornitzen du alegia folkloriko osoa.

**Rakel Gómez Vázquez** (Barakaldo, 1982) itxuraz denbora iragaitea eskatzen duen kontakizun bat alboratzen du espazioan: emakume bat eskaileta jaisten. Ekintza osatzen duten oinarritzko osagaiak beirazko xaflez bereizitako lamina zeharrargien gainean agertzen dira marraztuta.

**Inés Garcíaen** (Bilbo, 1983) *Lift* bideoan, itxura industrialeko agertoki bat agertzen da, binaka antolatuta dauden eta urrutiratzen ari diren argiz hornituta. Hala, aditzera eman nahi du egitura artifizial handi batean galduta sentitzeak sorrarazten duen zorabioa, eta urrutiratzen diren argi-pareak direla harrapatzeko moduko ordena errepikari eta auresangarri baten antz gehien dutena.

**Diego Vivancok** (Bilbo, 1988) baliabide lentikularra erabiltzen du *Human flag* lanean, bere argazkiak duintasun estetiko ezezagun batez hornitzeko. Ikuslearen mugimenduak (itxuraz) mugimendu bat sorrarazten du ikusten den irudian: hara-hona arin bat, erdiko irudiari giza bandera baten antza ematen diona.

**Julen Agirre Egibarrek** (Azpeitia, Gipuzkoa, 1984) forma arkitektonikoen indarra ikertzen du plano gainean egiten duen proiektzioan, eta, horretarako, aski soilak diren konbentzio geometriko batzuk baliatzen ditu. Prozeduraren urritasuna eta zorroztasuna ikusita, argi nabaritzen da zorretan dagoela minimalismoarekin.

**Juana García-Pozueloren** (Logroño, 1978) neguko paisaian, lehen planoan dagoen zerbaitek eguzki hilari ez dagokion argia ekartzen du, eta, beharbada epeltasuna ere bai. Alabaina, argi hotza da, eta epeltasuna odol bilakatzen da elurra urtzean. Tresna horren distiran ez dago itxaropenik, ez pozbiderik. Are antzuagoa den teknologiako baliabideekin natura mortuari bizitasuna emateko egindako saio indargabe bat baizik ez dago.

**Saray Bladesen** (Donostia-San Sebastián, 1984) bideoan aldizkakotasunaren, itzalaren eta islaren estetika agertzen dira. Ez dago agerpen ukaezinik, haien aztarna, oihartzuna eta proiektzioa baizik. Agerpenaren periferia hori mugitzen hasten denean, agerpenen eta desagertzen, urruntasunen eta hurbiltasunen eritmoari jarraiki, metatutako ebaneszentziek nola-halako arrastoa uzten dute iluntasunean. Espazioa.

**Sarah Rasinesek** (Burgos, 1983) aurkezten duen lanean izugarritzko garrantzia ematen die anplifikagailuei. Beti ezkutuan dauden eta soinua igortzeko eta anplifikatzeko baliatzen diren bitarteko gailuak izan beharrean, hemen eskubide osoko piezak dira, dagokien espazioa aldarrikatzen dute, eta beren elkarrizketa plastikoa hasten dute.

**Edurne Martínez Arroyoren** (Bilbo, 1982) piezan, lur gaineko harkaitzen zurruntasun irmoa eta gogortasun ezeztazina ekartzen ditu gogora margoak. Alabaina, berehala aldaratzen da hortik, obra osoak duen ehun-itxura ikusita, tapizaren edo –hobeto esanda– oihalaren modukoa baita, margolan gehienetan ohikoa izaten den euskarriak sorrarazten duen tentsioaren aurrez aurre jarrita.

Entziklopediak, harriek eta argazkiek eratzen dute **Eduardo Hurtadoren** (Valladolid, 1986) muntaia. Itxuraz egitura modular horrek duen zeregin bakarra da hain desberdinak diren osagai horiek indarkeriarik gabe lotzea, objektu desberdin horien artean esanahi aldeko harremana eratzea. Lotura semantiko hori sortu nahian, artistak interpretearen, jakintzaren ekoizlearen estatutua eskatzen du beretzat, entziklopedia baten egilearen keinuari erantzuna emanez.

**Edurne González** (Sestao, 1980) argazki-diptikoan zuhaitzak zuzen haz daitezen baliatzen diren tantaien irudia agertzen da, indarkeria garden eta biluzi osoz agertu ere, atzealde ilunaren aurrean; ortopedia edo hezkuntza zorrotzaren moduko zera hori giza hezkuntzaren sinboloa da.

**Saray Pérez Castillak** (Burgos, 1987) portzelana zurizko zatikiz eratutako topografia bat paratzen du lur gainean. Bazter batean botatako trapuen modukoak dira, beren apetaren arabera ematen diren eskreszentzia biologikoen gisakoak. Erakusketako gunean egin litekeen mutazioa eratzen dute, mutazio horren bidez ez baitzen hain formal eta arrazionalista izango.